



LANPOSTUEN ARABERA MASKARAK ERABILTZEKO BEHARRARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

Hezkuntza Saileko Prebentzio Zerbitzuaren eginkizuna Covid 19rekiko esposizio-arriskua baloratzea eta arriskua murrizteko beharrezko prebentzio-neurriak zehaztea da.

Arau orokor gisa, maskara erabiltzea derrigorrezkoa da ikastetxeko langile guztientzat, bisitariarentzat eta ikasleentzat, uneoro eta espazio itxi guztietan, baita kanpoaldean ere, betiere gomendatutako segurtasun-distantzia mantendu ezin bada.

- Ikasleek maskara erabiltzeko betebeharra duten gelak irakasleak Maskara kirurgikoa.

Bereziki sentiberak diren langileak, enbarazatuak eta bularreko haurrak: FFP2 (NBE, egoerak irauten duen bitartean).

- Gomendatutako maskara duten edo maskarik ez duten gelak

Ahal den neurrian, ikasleen artean maskara erabiltzea sustatu behar da, ahalik eta gutxien kutsatzeko.

2-3 urteko gelak, langileak FFP2 maskarekin

4 eta 5 urteko gelak, maskararik gabeko ikasleak badaude, langileek FFP2.

Maila horiek ikasgelan ahalik eta langile gutxien sartzeko moduan antolatu behar dira, burbuila eraginkorra izan dadin.

- Jantokiak
Langileentzat, maskararik gabeko eta ikasle guztiekin harremanetan jartzeko gune bat da. Jantokiko begiraleak eta jantokiko arduraduna: jantokian lan egindako denbora FFP2 maskara.
- Sukaldeak
Jangelara sartzeko denboran nahitaez erabili behar da maskara kirurgikoa, otorduak aurkezteko, aireztatzeko eta txanden arteko garbiketarak egiteko EPIak erabili behar dira.
- Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleei arreta ematen dieten lan-kontratuko langileak eta irakasleak.

Berritzeguneek artatu beharreko ikasleen diagnostikoa egiten dute, eta ikasleek maskarak erabiltzea kutsatzeko arriskuaren funtsezko faktorea denez, aholkulariek prebentzio-teknikariarekin lankidetzan jardungo dute langileek erabili beharreko maskarak zehazteko.

Babes bereziko lan-baliabideak direla eta, FFP2 erabiltzea adierazten da honako hauetan:

- Espetxeetan eskolak ematen dituzten helduentzako hezkuntzako irakasleak.
- Ospitaleko eta etxeko arretako irakasleak.

Prebentzio Zerbitzuko arduraduna

AMPARO BETEGÓN HERNÁNDO
Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 1a